



Azpeitiko Udala

HERRIAREN GOBERNU BATZORDEAK 2023KO AZAROAREN 7an HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.

1. Herriaren Gobernu Batzordearen eraketaren berri eman da eta ohiko izaeraz hilabeteko maiztasunarekin bilduko dela onartu da, hilabete bakoitzeko lehen asteartean, arratsaldeko 18:00etan edota 18:30etan gai kopuruaren arabera.
2. Oñatz auzoa, 178n dagoen ZELAIARAN baserriaren zati bat birgaitzeko eta bertan bigarren etxebizitza bat egokitzeko Ignacio Eguiguren Urquizuk aurkeztutako Egikaritze proiektua onartzea. Udalaren arkitektuak ezarritako baimenak bete beharko ditu.
3. Elias Larrañaga Elduayeni obra baimena ematea HAPOn Antzibarrena 23 HEan S3 partzelan dagoen industri-eraikuntzaren zuntz-zementuzko estalkia ordeztzeko eta lehendik dagoen pabilioiaren azalera 320 m² handitzeko, Jon Arratibel Urangak aurkeztutako proiektu teknikoa kontuan izanik.
4. Loiola auzoan dagoen aldakaitz etxearen aldameneko lursailean dagoen Parke Osasungarria jartzeko adostutako hitzarmena , beste lau urterako luzatzea, baldintza berberetan.
5. Azpeitiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren “11.Amue” Hirigintza Eremuaren Plangintza Bereziari Behin Behineko Onarpena ematea.

Azpeitia, 2023ko abenduaren 5a

UDALAREN IDAZKARIA,
Olatz Eizaguirre Orbegozo